

2018

URTEKO TXOSTENA

Izarbidean
ein jerie distirari!



Memoria honetan Izarbidean elkarteak, batez ere boluntarioei esker, 2018. urtean zehar burutu dituen ekimenen narrazio kronologikoa aurkeztuko dugu.

2018ko ekimenetan hanbat dira aipatzekoak eta aurtengoan ospatu berri dugun **Fair Saturday** da nabarmendu nahi duguna. Herriko hainbat musikari-

rekin bat eginda azaroaren 24an Merzedeko elizan kontzertu ikusgarriaz gozatzeko aukera izan genuen, guztiok bat eginda arratsalde zoragarria izan zen, musikariak paregabeak izan ziren eta eliza goraino beteta egon zen. Guretzako oso hunkigarria izan zen eta esker-rak oneko hitzak baino ez ditugu parte hartu zuten guztientzako.



Urtean zehar egin ditugun ekintzen artean, Sukalde tailerrarekin jarraitu dugu eta hainbat errezeta berri ere sukaldatu ditugu. Polikiroldegiko gimnasio eta igerilekura joaten direnean ere gustura aritzen dira. Gure lokalean, **topagunean**, hainbat arratsalde pasatu ditugu, eskulanak egiten, futbolinean jolasten edota beste hainbat ekintza burutzen. Zaldietara, ekinoterapia saioetara nahi baino gutxiagotan joan gara. Zapaturu egiten den arren talde bitan joaten gara eta, horregatik, asteroko irteera izan ordez erabiltzaile bakoitzak bi astean behin egiten duen jarduera bat izatera pasatu da. Asteburu osoko irteera batzuk egin dira, eta baita egun pasako irteerak ere.

Ekimen, irteera edo jardueraren baten sortu daitezkeen anekdota eta bizi-pen asko kontatu ditzakegun arren, erabiltzaileengan sortzen den itzelezko ilusioa azpimarratu nahi dugu.

Besterik gabe, murgildu zaitez gure memorian eta jakizu, existitzen diren muga bakarrek nork bere buruari jartzen dizkiogunak direla.

Izarbidean, dirua irabazteko asmorik gabeko elkarte da. Elkarrekin hau aniztasun-funtzionala duten erabiltzaileen gurasoek sortu zute. Hain zuzen ere, Markina-Xemein eta Etxebarriako guraso batzuek. Gaur egun, Izarbidean taldea familiar-tekoek, boluntarioek eta erabiltzaileek osatzen dute.

Gurasoen helburu nagusia, haien seme-alaben gizarteratzearen aldeko plana egitea eta gizarte osoari, baina batez ere herri horietako herritarrei, horretan partaide eta laguntzaile izateko eskatzea da.

2007ko urtarrilean jarri zen martxan Aisialdi-proiektua, Markina-Xemeingo Udalak utzitako Topagune deitu genion lokal batean. Izenak esaten duen moduan, helburu nagusia ume, gazte eta helduak elkarrekin egoteko gune aproposa izatea da.

Nabarmendu Izarbidean Onura Publiko-dun Elkartean eroldan onartua dagoela 2002ko Maiatzaren 7tik.



Markina-Xemein eta haren inguruan ez dago pertsona horien premiak betetze-ko aisialdi ekintzarik. Hori dela eta, lagun gehiagorekin elkartu eta ondo pasatzeko aukera izan dezaten aisialdi eskeintza da ematen zaiena, beti ere, gizarteratze helburuari jarraituta. Hori guztia boluntario eta laguntzaile kontratatuekin batera garatzen da.

Bai Topagunean, bai kalean hainbat ekintza egiten dituzte: paseoan ibili, margotu, jolastu...

Dena den, kontzienteak gara hori ez dela egoera ideala, zeren eta beren Aniztasun-funtzionala dela eta, lagunekin eta beren monitoreekin baino ez

izatea. Baina, bestelako herriko ekintza eta ospakizunetan, zoritxarrez, gure erabiltzaile ia gehienak baztertuta gelditzen dira.

Azken urteotan, pauso handiak eta sendoak eman dira Inklusioa gauzatzeko bidean, baina bidea luzea eta neketsua da eta argi asko ikusten dugu hori gurasoek eta familiakideek ez ezik baita monitore eta laguntzaileek ere. Dena den, gure helburua betetze aldera, saiatuko gara erabiltzaileek ekintza arruntetan eta "normalizatueta" parte har dezaten, inklusio bat aurkitzeko bidean.



Proiektu hau 17 erabiltzailerekin hasi zen, eta hilabete batzuetara 19ra handitu zen. Gaur egun 19 dira. Ia gehienak Markina-Xemeingoak dira, baina badaude inguruko beste herri batzuetakoak ere (Etxebarria eta Mutriku).

Adinari dagokionez, proiektua adin guztietara dago zabalik. Gure erabiltzaileak, une honetan 16 eta 62 urte bitartean daude. Horregaitik, 2 taldetan banatuta daude, adinaren arabera:

Garra-garraka taldea (16-23 urte bitartekoak)


Algaraka taldea (24-62 urte bitartekoak)

Erabiltzaileek diagnostiko desberdinak dituzte. Adibidez: Autismoa, West Sindromea, Garun paralisia, Mikrozealia + Hemiplejia...

Aipatu beharra dago erabiltzaileek Izarbidean elkartera oso gustura etortzen direla, beraientzat aisialdia oso aberasgarria eta gustagarria baita. Izan ere, egunerokotasunean egiten ez dituzten hainbat ekintza egiten dituzte eta "eurena" sentitzen duten leku bihurtu dute Topagunea.

Taldeak	Garra-garraka	Algaraka	Guztira
Neskak	1	8	9
Mutilak	3	7	10





- Adimen-desgaitasuna legeak onartuta izatea.
- Elkartean erroldatua egotea,
- Elkartean dagoen bitartean zunda, injehtagarri eta abarren beharra ez edukitzea
- Norbere burua eta beste pertsonen segurtasuna arriskuan jar dezaketen jokaerarik ez izatea.
- Erabiltzailearen premiek monitore eta erabiltzailearen ratoria egokitua egon beharko dute.
- Taldearen funtzionamendura edota jarduerara egokitzea.



Izarbidean elkartearen Topagunea eta aisialdi-proiektua aurrera eramateko, ezinbestekoak dira boluntarioak. Lehenik eta behin, Izarbidean elkartek ez duelako horrenbeste jende kontratatzeko baliabide ekonomikorik, eta bigarren, baina ez horregatik garrantzia gutxiago duelako, BOLUNTARIOek ematen diotelako izaera eta hauspoa gure elkarteari.

Horien guztien arduraduna ere boluntarioen artetik hautatutako bat da, azken hau kontratuean egoten da.

Boluntarioak oso pozik eta gogotsu etortzen direla Izarbideanera esaten dute eta ikusi ere, halaxe ikusten da. Hona hemen beraiek esandako esaldi batzuk: "pertsona bakoitzak bere lekua duelako eta bizitza bat dugunez, aprobetxatu egin behar dela erakusten digutelako, talde oso aberasgarria delako eta gustu handia da bertako partaide izatea", "pozik bizitzen eta alaitasunez gozaten erakusten digutelako une askotan, eta talde-giroa ezin hobea delako", "oso persona maitakorrak die, zuk emotezun gitxiaz asko jasoten dozuelako eurengandik", "Irakasle paregabeak dira, irribarrik galdu gabe bizitzan aurrera egiten erakusten digutelako".

Boluntarioak lortzeko bidea

Prentsa: Zenbait egunkariekin harremanetan izan gara: HITZA, DEIA, CORREO. Hirurei eskatu genien titular hau erabiltzeko: "IZARBIDEAN Elkartek boluntarioak behar ditu".

Kartelak: Markina-Xemein, Ondarroa eta Etxebarriko kaleetan eta zenbait komertziotan kartelak jarri ditugu.

Ahoz ahoko transmisioa: hau da, boluntarioek eurek, taldeetan, institutoetan eta abar egiten dituzten komentarioetatik lortzen dogu oihartzun handiena.

Sare sozialak: Instagram eta Facebook bidez ere geure burua ezagutzera ematen ari gara, gure hainbat ekimen argitaratuz jendea elkartera erakartzea helburu dugularik.

Boluntario izateko betebeharrak

- 18 urte beteta izatea eta horrelako lan batean parte hartzeko gogoia izatea. 16 urtetik aurrera ere ari daitezke boluntario lanetan, baina beti ere gurasoen baimenarekin.
- IZARBIDEAN elkartearekin izango dituen eskubideak eta betebeharrak azaltzen dituen dokumentu bat sinatzea.

Boluntarioei harrera

Boluntario batek izena ematen duenean, lanean hasi aurretik, beraiekin biltzen da koordinatzailea. Bilera horretan zera azaltzen zaio:

- Haien eskaintzara moldatzen garela eta lana zein talderekin eta zein ordutegitan egingo adosten dugu.
- Lokala erakusten zaio.
- Eskubideak eta betebeharrak fitxa betetzen dute (boluntarioen legea)
- Proiektuaren nondik norakoa azaltzen zaie (txostentxo bat ematen zaie)
- Erabiltzaile bakoitzaren informazio ematen zaio.

Boluntarioen zerrenda

IZENA	HERRIALDEA
Ainara Benedicto	Markina-Xemein
Ainhoa Aspiazu	Markina-Xemein
Aitor Bereziartua	Etxebarria
Amaia Markuerkiaga	Ondarroa
Amaia Urrutia	Markina-Xemein
Amaia Zuberogoitia	Markina-Xemein
Andrea Etxebarria	Markina-Xemein
Ane Elorriaga	Markina-Xemein
Axier Vivanco	Markina-Xemein
Bihotz Ibarzabal	Markina-Xemein
Nahia Eguia	Ondarroa
Eider Elkorobarrutia	Markina-Xemein
Garazi Espila	Markina-Xemein
Igor Ibarluzea	Markina-Xemein
Ihintza Ugartetxea	Markina-Xemein
Izaro Arbe	Markina-Xemein
Kattalin Mendibe	Markina-Xemein

Formazioa

Boluntarioei lehenengo bileran Anistazun-funtzionalari buruzko dokumentu bat ematen zaie. Bertan dago azalduta nola funtzionatu behar duten erabiltzaileekin. Beste alde batetik, formazioa saioak antolatzen dira.

Ikastaro horiek, helburu argi bat dute: Lana ahalik eta modu eraginkorrean garatu dezaten laguntza eta aholkuak eskaintzea. Horretarako, Apnabi, Gorabide, Aspace... elkarteak gonbidatu izan ditugu, informazioa eman diezaguten.



IZENA	HERRIALDEA
Leire Elorza	Markina-Xemein
Leire Ibarluzea	Markina-Xemein
Maia	Markina-Xemein
Maialen Basterretxea	Ondarroa
Maitane Gabiola	Markina-Xemein
Miren Zuberogoitia	Markina-Xemein
Nagore Unanue	Markina-Xemein
Oihana Iraolagoitia	Markina-Xemein
Olaia Aguinaga	Markina-Xemein
Olatz Rueda	Markina-Xemein
Malen Altuna	Markina-Xemein
Nerea Meabebasterretxea	Ondarroa
Aduna Herreros	Ondarroa
Nagore Unanue	Markina-Xemein
Sarait Martín	Ondarroa



Arestian azaldu dugun modura, elkartearen helburu nagusia erabiltzaileei haien denbora librean, aisialdian, zenbait ekintzetan parte hartzeko aukera ematea da. Horretarako, esparru desberdinetan mugitzen gara. **Topagunean** egiten dira ekintza gehienak, baina herriko bestelako zerbitzu eta eskaintzak ere erabiltzen ditugu eta ekintza kulturaletan parte hartzen dute. Adibidez: polikiroldegia, tirolina, etab.

Erabiltzaileen integrazioa dela eta, esan genezake, talde bakoitzarekin lana egiterako orduan, alde desberdinak hartu behar direla kontuan, taldeek ezaugarri propioak dituztelako, horietako bakoitza osatzen duten erabiltzaileen ezaugarri pertsonalen arabera. Hori dela eta, ekintza oso desberdinak dira talde batetik bestera. Adibidez, **Algaraka** taldea da autonomia handiena duena. **Garra-garraka** taldeak arazo gehiago eta anitzagoak ditu, eurak baitira ezintasun handienak dituztenak.



Gazteak: Garra-garraka taldea

- Ekinoterapia | 6:00etatik-19:00 etara (bi larunbatetik behin)
- Igandea Topagunea | 6:00etatik-19:00etara.

Nagusiak: Algaraka taldea

- Astelehena | 8:00etatik-20:00 etara Topagunea
- Asteartea | 8:00etatik-20:00etara Zeramika tailerra
- Asteazkena | 8:00 etatik-20:00etara sukaldaritza Topagunean
- Ostegunetan | 11:00etatik-13:00etara paseo herrian zehar
- Ostiraletan | 17:00-19.00etara Topagunea
- Ostiraletan beste ekintza batzuk; igerilekua edo gimnasioa | 8:00etatik-20:00etara. 2.taldetan banatzen gara; hilean ostiral bitan batzuk igerilekura eta beste bi ostiraletan gimnasia.
- Larunbatetan Ekinoterapia | 6:00etatik-19:00etara. Taldea zatitu egiten da: Garra-garrakoekin elkarbanatzen dute ekintza, talde horretan erabiltzaile gutxiago dagoelako.



IZARBIDEAN elkarteak abian jarritako aisialdirako proiektu hau, jada nahikoa sendotuta dago gizartearen onarpenari dagokionez. Hala ere, boluntarioak egon badauden arren, ondo zaindu beharreko kontua dela deritzogu, haiek baitira Izarbideanen euskarri nagusia.

2017tik 2018 urtera baja batzuk izan ditugu, aurrera jarraitu ahal izan dugun arren, beti ere begirale berrien beharra dugu, hori dela eta, aurtengo ere Markina-Xemeingo Lea Artibai ikastetxera joko dugu hitzaldi bat eman eta horrela ea gazteak animatu eta gure elkartearen parte izatera animatzen diren.

Erabiltzaileak direla eta, lehenago ere aipatu den arren, garrantzitsua da nabarmentzea orain dela 2 urte hartutako erabakia: hiru taldetan banatuta zeuden, baina gazte eta nagusien arteko adin-tartea mantentzen den arren, gazteak ere nagusitu egin dira eta ekintzak elkarbanatzen dituzte ehuneko ehunean.

Talde bakoitzarekin burututako integrazio-lana erabiltzaile bakoitzaren desgaitasunaren arabera da gehien bat, horietako bakoitzak bere ezaugarriak dituelkao eta erabat baldintzatzen duelako zer egin daitekeen eta zer ez.

Erabiltzaileen integrazioa hobetzeko, ekintzak hainbat leku eta esparrutan egin dira. Topagunea erabiltzen da ekintza gehienak burutzeko, baina beste-lako eskintzak ere erabiltzen dira, adibidez: cinema, polikiroldegia, bolera...

Arratsalde bateko irteerak ere egin dira, adibidez: Tiro-linan ibiltzera joan dira. Asteburuko irteerak ere egin dira, esaterako: Gasteizera eta Zarautzera.



Nagusien taldea taldea: **Algaraka**

Topagunean:

- **Batzarrak:** eguneroko programazioa landu, hurrengo egunetakoak prestatu, proposamen berriak jaso...
- **Eskulanen tailerrak:** belarritakoak, eskumuturretakoak, apaingarriak, kobrea erabiliz arbolatxoak, egurrezko kaxak... Denetatik aurtengo Urriko azokan arrakasta gehien izan duena apaingarri eta kobrezko arbolatxoak izan dira..
- **Mahai-jokoak:** partxis, nor da nor? puzzleak, domino, margotu...

Urtero bezala Markixa-Xemeingo Urriko Azokan parte hartu dugu. Erabiltzaileek egindako eskulanak saldu dira, eta bide batez herritarren aurrean erakutsi dituzte euren abilezia eta trebeziak.

Atal honetan nabarmendu nahiko genuke hainbat herritarrek Izarbidean elkarteari lagungzeko duen borondate onaren adierazgarria izan dela Azoka; izan ere, hainbat esku-lan eskaini dizkigute gure postuan saldu ahal izateko.

- **Sukaldaritza:** Guriñezko gailetak, pizza, bizkotxoak.... Hona hemen burutu ditugun pare bat erreztea adibide gisa:



Algaraka taldea

• LABEKO GAZTA TARTA:

- Osagaiak: Tarta oinarria (hostopila), 200ml esne gain, 200g Philadelphia gazta, kazokada bat pastel-krema eta 100g azukre.

- Prestaketa: Tarta oinarria prestatu (guk egindakoa edo erositakoa izan daiteke), hasteko hostopila laberako egokia den molde batean ipini, aluminiozo papera gainean jarri eta labean sartu hogei minutuz (aurretiaz 180 gradotan berotuta). Labetik atera, eta hozten utzi. Ontzi batean esne gaina eta azukrea biak batera nahastu, eta, ondo irabiatu ondoren, altxatu; esne gaina gogortu egingo da. Beste ontzi batean, ondo nahastu Philadelphia azta eta kazokada pastel-krema, eta, gero, esne gain harrotua gehitu. Poliki poliki nahastu. Lortu Berri dugun krema hori labetik atera dugun oinarrian zabalduko dugu. Azkenik hozkailuan hozten utziko dugu eta jateko prest daukagu.

• BROWNIE:

- Osagaiak: 250g gurin, 150g txokolate, 225g azukre, 4 arrautza eta bainila esentzia.

- Prestaketa: Hasteko txokolatea mikroondasean urtuko dugu, ia urtuta dagoenean gurina gehituko diogu eta nahastu egingo ditugu. Ondoren beste ontzi batean arrautzak eta azukrea nahastuko ditugu, masa txuri bat lortu arte. Masa hori aurretik eginiko txokolate eta gurinarekin batuko dugu. Ondoren guztia molde batean jarri eta aurretiaz 180 gradotan berotu dugun labean sartuko dugu. 30 minutu inguru izango dugu labaren barruan eta azkenik hozten utziko dugu.

Topagunetik kanpo:

- Herrian zehar paseoak eman edo eta zerbait hartzera joan...
- Ekinoterapia saioak
- Porikiroldegira: Igerilekura eta gimnasia.
- Asteburuetako irteerak eta egun osoko irteerak.



Gazteen taldea: Garra-garraka

Topagunean:

- Puzzleak egin
- Margotu
- Musika entzun eta jolasak burutu musikarekin
- Ordenagailuan jolastu
- Mahai jokoak
- Dantza



Topagunetik kanpo:

- Herritik edo bidegorritik paseoak
- Igerilekura
- Ekinoterapia saioak
- Asteburuko irteerak
- Egun osoko irteerak



Garra-garraka taldea

Ekinoterapia saioak

Ekinoterapia saioak larunbatetan egiten dira, 16:00etatik 19:00etara, YEGUADA OLMEDO-URANGAn (Mutriku).

Bi taldeetan banatuta daude, ekintza hobeto burutu eta aprobetxatzeko asmoz. Lehenago aipatu bezala, larunbat batean Garra-garraka taldekoak joaten dira, baina 5 erabiltzaile baino ez direnez, Algaraka taledako batzuk ere parte hartzen dute, txandaka, haiekin batera, eta urrengo asteburuan algaraka taldea joaten da.

Ekintza hori ia urte guztian zehar burutzen da, urtarrilean hasi eta azaroan bukatzen dituzte saioak (udaldiko oporren tartea salbu).

Ekinoterapia saioak oso ondo baloratzen dituzte, bai erabiltzaileek eurek eta baita gurasoek ere.

Gauzak horrela, ekinoterapia saioek jarrai dezaten diru-laguntzak lortzen ahaleginduko gara.



Asteburuko irteerak

2018ko irteerak honako hauek izan dira:

- Apirilaren 21-22 **Zarautzera irteera:** Algaraka taldearekin.

Parte hartu zuten boluntarioak hauek izan ziren: Nagore, Nahia eta Nerea.

Bertan buruturiko ekintzak: Eguraldi paregabea izan zuten bertan egon ziren egunetan, beraz herria ondo ezagutu eta paseo ederrak emateko aukera izan zuten. Hondartzan jolas desberdinak burutu zituzten eta baita malekoian gora eta behera ibili. Nola ez hainbat ibili ondoren ondo merezitako freskagarriak artzeko aukera ere izan zuten. Eguraldi zoragarria izan zen eta berriro errepikatzeko gogotsu daude



- Maiatzaren 5-6 **Lekeitiora irteera:** Garra-garraka taldearekin.

Parte hartu zuten boluntarioak hauek izan ziren: Nahia, Nerea, Maia

Bertan buruturiko ekintzak: Goizean Lekeitioko Faroan izan ziren eta bertako tabernan freskagari bat artzeko aukera izan zuten. Bazkal ostean berriz pistinara joan ziren, asko gustatzen zaie uretan ibiltzea eta bertan utzitako material desberdinekin arratsalde zoragarri bat pasatzeko aukera izan zuten. Urrengo egunean portura egin zuten bisita eta asko ibili ondoren berriro ere etxera buelta.

- Ekainaren 9-10 **Lekeitiora irteera:** Talde osoa.

Parte hartu zuten boluntarioak hauek izan ziren: Nahia, Leire E, Eider, Amaia M eta Nerea

Bertan burututako ekintzak: Urtean behin talde biak bat eginda asteburu bat igarotzen dute elkarrekin, aurten lekeitiora joatea tokatu da eta ze ondo ibili ziren. Guztiek ondo ezagutzen duten herria da eta eguraldia lagun zutela goiz ederra igaro zuten hondartzan, arratsaldean berriz batzuk pistinara joan ziren jolas egin eta ondo pasatzera eta besteak berriz nahiago kalean ibili eta paseatzeko aprobetxatu zuten. Gauean afal ondoren portura bajatu eta zerbait hartzen egon ziren. Pena handiz urrengo egunean etxera buelta.

Asteburuko irteerak

- Urriak 6-7 **Lekeitiora irteera:** Garra-garraka taldearekin.

Parte hartu zuten boluntarioak: Nahia, Miren, Nerea eta Maialen.

Bertan burututako ekintzak: Eguraldia ez zen lagun izan oraingo hontan, beraz goiza aterpetxearen inguruetan eman zuten, jolas batzuk burutu eta bertan dagoen tabernan freskagarri bat hartuz. Arratzaldean berriz askotan bezala pistinara habiatu ziren eta bertako materiala erabiliz jolastu zuten neka neka eginda bukatu zuten arte. Urrengo goizean portura joan ziren eta paseoan ibili ondoren etxeratzeko ordua heldu zen.

- Urriak 20-21 **Gasteizera irteera:** Algaraka taldearekin.

Parte hartu zuten boluntarioak: Maialen, Axier eta Nerea

Bertan burututako ekintzak: Gasteiz herri zoragarria da eta beraz txoko desberdin eta politak ikusteko aukera izan zuten, argazki asko atera eta paseo ederrak eman zituzten. Aterpetxea Kutxilleria kalean dago kokatuta eta beraz egun osoan zehar izaugarritzko giroa egoten da, beraiei asko gustatzen zaie jende berria ezagutu eta poteoan ibiltzea beraz arratzaldea Kutxillerian gora ta behera eman zuten. Gauean afal ostean dantzari egitera atera ziren. Hurrengo goizean azken paseo eman eta hurrengorarte agurtu zuten herria.



Eguneko irteerak:**- Martxoaren 19 Tirolina Algaraka taldearekin:**

Gure lagunak diren Sustraiak Natura abentura taldearekin bat eginda tirolinan ibiltzera joan ziren. Egun zoragarri eta desberdin bat pasatzeko aukera honi ezin egin uko. Goizean autobusa hartu eta denen artean prestatu zuten mendian behera jaitsiko zuten soka eta materiala. Irribarrerik ez zen falta gure erabiltzaileen aurpegietan. Behin denak tirolinan behera ibili ondoren eskalada saio txiki bat izan zuten, ausart aritu ziren guztiak.

Eguerdian gurasoek prestatutako bazkari ederra jan eta kantu eta historio desberdinak esan ondoren etxera abiatzeko ordua heldu zen.



Eguneko irteerak:

- Apirilak 16an Durangora zinemara:

Algaraka taldeareekin joan ziren Durangoko zineetara, aurte estreinatu den "Campeones" pleikula ikustera. Aniztasun funtzionalaren inguruan doa filma eta nola nahiz eta aniztasun bat izan bizitzan nahi duzuna lortzeko aukera duzun, lan eta esfortzuarekin dena atera daiteke aurrera.

Asko disfrutatu zuten eta asko eta asko bertako protagonistekin identifikatuta sentitu ziren. Aukera izanda denek ikusi beharko lukeen film bat delakoan gaude.



Bestelako ekintzak:**- Otsailak 5 Santa Ageda:**

Aurten bigarren aldiz Markina-Xemeningo beste elkarte batzuekin bat eginda atera ginen kantuan. XAT, guraso elkarte eta Izarbidean atera ginen, horrez gain boluntario eta hainbat guraso elkarte eta hotzari kantuz aurre egin genion. Denon artean asmatutako bertso pare bat ikasi eta soinu-jole eta bertsolari birekin ibili ginen herria eta herritarrek alaitzen.

Hotz handia egiten zuen arren, gu urteroko ilusio berdinarekin atera ginen kantura eta ahal dugun bitartean berdin egiten jarraituko dugu, ohitura zaharrak bizirik mantentzeko asmotan.

- Otsailaren 17an, Gozogintza postua:

Urtero bezela merkatariek elkarteak antolatzen duen azokan Izarbideanek bere postua jarri zuen. Urtean zehar sukaldaritza tailerren ikasitako gozoak saltzeko. Postua orain dela lau urte jarri genuen lehenengoz, baina herritarren artean erreferentzia bihurtu dela esan genezake, egindako guztia saldu bait genuen. Aukera izaten jarraitzen dugun bitartean ekimenarekin aurrera jarraitzea da gure asmoa.



Bestelako ekintzak:**-Ekainak 23an San Juan suak:**

Urtero bezala eta ohitura onak galdu gabe, aurten ere Izarbideanek bereaien protagonismo puntua izan dute kalejira eta ikuskizunean. Sua pizteko ohorea ere izan zuten. Kalejiran eta dantzaldian ere gustura parte hartu zuten gure erabiltzaileek, gainerako herritarrekin batera.



Erabiltzaile guztiak

Bestelako ekintzak:

- Urriak 13an **Urriko Azoka Nagusia**

Erabiltzaile eta gurasoak izan ziren saltzaile lanetan postuan, erabiltzaileek egindako eskulanak, jendeak borondatez emandako liburu eta beste esku lanak atera ziren salmentara. Gauza asko saldu ziren, baina horrez gain, eta garrantzitsuena dudarik gabe hau da: zein ondo pasatzen duten erabiltzaileek eurek egindako gauzak saltzen eta jendeari azalpenak ematen. Aipatzekoa da, baita, urtero bezala gabonetako loteria atera genuela eta loteria ere saldu zela azoka egunean. Egun horri begira izaten dugun helburu nagusia primeran bete zen; hau da, Izarbideaneko erabiltzaileak egun horretan beste edozein herritarren moduan herriko ekintza esanguratsu baten partaide izatea eta sozializatzea.

Izarbidean “Mile esker saria”ren irabazlea

Herriko **Hemen be bai** merkatariek elkarrekin egun honetan “Mile esker saria”ren banaketa egin zuen. Elkarrekin honek markina-xemeindarren artean bozkaketa bat jarri zuen martxan aste batzuk lehenago, ekimen honetan nahi zuten herritar guztiek parte hartu zezaketen eta Markina-Xemeingo 3 elkarteren artean aukeratu beharra zuten. Bozka gehien jasotzen zituenari merkatariek 250€ko sari bat luzatuko ziotarik. Irabazlea Izarbidean elkarrekin izan zen eta ezin gaitezke pozago egon. Eskerrik asko markina-xemeindar guztiei!!!



Erabiltzaile guztiak

Bestelako ekintzak:

- Azaroak 4an **MTV AWARDS Bilbon**

Elkarteko erabiltzaile bik Bilbon ospatu zen MTV AWARDS sarietako ikuskizun handira joateko aukera izan zuten. Mundu mailan izugarrizko oihartzuna duen jai erraldoi honetan ere presente egon zen gure elkarte eta gaur egun musika munduan gorenean dauden artisten ikuskizunak zuzenean ikusteko aukera izan zuten gainera!



Bestelako ekintzak:**-Azaroak 24an Fair sartuday:**

Duela urte batzuk egin zen ekimena berriro ere errepikatzea erabaki zen aurtengo urtean, herriko hainbat musikarirekin bat eginda, primerako emanaldia antolatu zen Mertzedeke elizan. Eliza txiki geratu zela esan genezake, jende asko hurbildu baitzen soinu eta abesti paregabeak entzuteko asmotan. Emanaldi oso hunkigaria izan zen eta bukaeran Izarbideaneko erabiltzaileek, parte hartu zuten musikari guztieei lora txorta eder bana oparitu zieten.



Fair sartuday



Eskerrik asko!!!

Fair sartuday



Eskerrik asko!!!

Bestelako ekintzak:

-Azaroaren 23tik abenduaren 3ra
Euskaraldia:

Euskaraldiari babesa eskainiz
Izarbidean elkarteak ere ekimen
honekin bat egin nahi izan zuen.



Bestelako ekintzak:**-Abenduak 15 Lagun Izkututa:**

Urteari amaiera emateko, erabiltzaile, guraso eta boluntario guztiak Topagunean elkartu ziren. Erositako opariak banatu zituzten elkarren artean eta aurretiaz zozketa bidez tokatutako pertsonari eman zioten oparia. Egun hau oso berezia eta polita denez, kopau bat prestatu zen Topagunean, eta jaia bukatu ostean, herriko tabernetan ibili ziren taldean, freskagarriak hartu, dantzan egin, pintxoak jan, argazkiak atera... Erabiltzaileak oso-oso pozik egoten dira honelako ekintzetan, gainerako herritarrekin batera ibiltzen direlako kalean.



Bestelako ekintzak:**-Abenduak 19an Berakruz Ikastolan txokolatada:**

Berakruzeko ikasleek beraien Ikastolara gonbidatu gintuzten txokolatada bat ospatu nahi zutelako gure elkartearekin. Gure erabiltzaileak pozarren joan ziren bertako gazteekin kopau eder batekin gozatu eta ostean bertsotan eta dantzaz aritzeko. Erabiltzaileetako batzuk gainera, bertan ikasitakoak izanik, beraien irakasle izandakoekin elkartzeko aukera izan zuten.



www.izarbidean.org

Facebook-Izarbidean


Instagram-Izarbidean

2010ko uztailan jarri genuen martxan gure webgunea. Zenbait helburu ditu webgune honek, baina denen artean garrantzitsuenak da erabiltzaile, haien familietako partaide eta, oro har, herrikoei, ingurukoie eta gutaz zerbait jakiteko gogoia duten guztiei informazioa helaraztea.

Bizi garen garaia kontutuan hartuta, hausnarketa bat egin eta interneten presentzia izatea ezinbestekoa dela ohartarazita, gure barri emateko ahalegina egin behar genuela erabaki genuen.

Horregatik, webguneaz gain Facebook eta Instagram sare sozialetan ere profilak sortu ditugu, izan ere, zenbait erabiltzailek profil propioak dituzte sare hauetan eta Izarbideanek ere berea izateko eskaera egin zuten.

Teknologia berrietan egin dugun murgilketaren inguruan balorazioa oso positiboa da, izan ere, erabiltzaileek bereziki estimatzen dute beraien berri ematea irudi eta testu hoietako protagonista izatea gustoko dute. Gainera, jendeari elkartearen Berri emateko bide arina eta zuzena da.



www.izarbidean.org

Laguntzaileak:

Markina-Xemeingo Udala

Etxebarriako Udala

Ziortza Bolibarko Udala

Bizkaiko Foru Aldundia

Laboral Kutxa

La Caixa Bulegoa

Floridita Bilbao

Danobat

Cikautxo

Nemak

Eika

Kide

Arrasate

Lagun Aro

Hemen Be Bai
merkatari elkarteak

...

